


HAUR LITERATURA

Idazle deserosoa

Asun AGIRIANO

Aurten Roald Dahl (1916-1990) galestar idazle handia jai zela ehun urte betetzen direnean, orri hauetara ekarriz berreskuratuko dugu geuk ere. Aukera polita iruditzen zait umorez betetako liburu eder bati berriro heltzeko eta, aldi berean, dagokionari eskatzeko aspaldiko euskal edizio zaharkituak – batzuk akats ugari dituztenak – hurrengo edizioetan zuzentzeko. Liburu batzuk agortuta, beste zenbait eguneratzeko, badago lana argitaletxeren batek heldu nahi badio. “Sorginak”, “Matilda”, “Charlie eta txokolate lantegia”... hainbat liburu gogoangarriren artean zein aukeratuko, eta “Errima errebeldeak”-en alde egin dut. Berritzailea oso, 1982an idatzitakoa izan arren, oraindik lotsagabea eta zoroa, ironikoa eta desmitifikatzailea. Benetan ezagutzeko modukoa da Roald Dahlen umorea.

Amak txikitan Norvegiako ipuinak kontatzen zizkion, jatorriz herrialde hartakoak ziren eta. Agian horregatik, garai hartako idazle ingelesek baino mentalitate irekiagoa izateko balioko zion. Esan ohi da Dahlek Erresuma Batura eta haur literaturara umorea ulertzeko ikuspuntu berria ekarri zuela, ekarpen interesga-

**ERRIMA ERREBELDEAK**

Autorea: Roald Dahl.
Argitaletxea: Zubia, 2001.
Orrialde kopurua: 32 orri.
Salneurria: 6,25 euro.

ria. Dahlen umorea iraultzailea da, egoera eta izaera xelebreetan oinarritua.

“Errima errebeldeak” liburuan sei ipuin klasiko hartu eta bertsio barregarriak aurkezten dira. Haur guztiek ezagutzen dituzten “Mari Errauskin”, “Jon eta babatxo miragarria”, “Edurne Zuri eta zazpi ipotxak”, “Urre Kizkur eta hiru hartzak”, “Txanogorritxo eta otsoa” eta “Hiru txerriak” dira aukeratuak. Dahlek ipuin unibertsalei buelta eman zien, esajeratuz, errebelde bihurtuz. Prosa errimatua da egitura; azpimarratzekoa Joseba Santxoren itzulpen zorrotza, ahazkotasunaren kodeak bikain menperatzen dituela erakusten du. Horregatik esango nuke ipuin errimatu hauek ahazkotasun gehiago goza daitezkeela.

Bitxia da zer tratu eman dioten liburuen izenburuari; “Revolting rhymes” ingelesez, “errima nazkagarriak edo okagarriak”. Itzultzaileak askotan editore ere badira: karga eskatologikoa ezabatu eta izenburua leundu da, pentsatuz haurrak erakarri bai, baina helduak izanda liburuak erosten dituztenak, ba, izenburu irreberente horrek uxatuko lituzkeela. Horiek baino, argi dago irakurle-hartzailea haurra dela; horrela irakur daiteke “Mari Errauskin” ipuinaren lehengo lerrotik: «Ipuin hau badakizu, buruz beharbada, / baina bertsio ona heav-

yagoa da! / Sasi bertsio hori, zuk entzun duzun, / deskafeinatu zuten, ez zen hain biguna, / Usterik ipuinari jarriz be-xamela / Haurrak esne-mamitan biziko zirela!».

Garbi agertzen da Dahlen asmoa: ipuina “okupatu”, desmuntatzeko; hautsi lehenik, berreraiki gero. Bestalde, idazle handi honen liburuak ia beti Quentin Blake ilustratzaileak marraztu ditu, ezinbesteko adiskidea Dahlen literatura ulertzeko. Itxuraz sinpleak, baina oso sotilak, marra azkar eta urduriak, haur batek marraztuko lituzkeen antzekoak, zirraborroak bailiran, pertsonaien aurpegiak adierazkortasun handia lortuz. Dahlek haur bihotza zuen, alai eta zoroa. Idatzi zituen liburu askok moden gainetik iraun dute. Egun, haurren konplizitatea lortzen du, irakurleak dibertitzen jarraituz. Mendeurrena aitzakia, etxeko eta biblioteketako apaletan bizi den idazle deseroso honi egingo dizkion omenaldiak hastera doazenean, aukera dugu gaurko klasiko honen liburuetara itzultzeko; izan ere, horrela zioen C. S. Lewis idazleak haur literaturaren klasi-koen gainean: «Hamar urterekin irakurketaren bitartez atseginez eta etekin ez betetzen zaituen liburua berrogeita hamarrekin atsegin eta etekin handiagoz irakurtzen da».

POESIA

Izan zenarena

Iker ZALDUA


Izan” eta “egon” aditzek bi lurralde zedarrizten dituzte. Ez baita gauza bera nonbait izatea edo nonbait egotea. Bidaiatzen dugunean, normalean, izan aditza etxean uzten dugu, egotera goaz, lekuak ikusi egiten ditugu, lekuetan egon egiten gara, nahiz eta, ondoren, izan bagina bezala kontatzen dugun egonaldia.

Lekuarekin harremana sortzen denean, lekua besarkatu, usaindu, egiten dugunean, han izan gabela esan dezakegu, eta itzuleran ere arrastoa uzten du guran lekuak. Ordulari txikiak milaka bira eman dituen arren, iltzaturik dugu malenkonia eta, zenbaitetan, kateatutako sentimenduak burutik askatu nahi badiugu ere, ezinezko egiten zaigu, Aintzane Galardik berak ere aitortzen digu “Asmazioa” izenekoan: «Utz diezaiozun / betirako oinetan itsatsiriko / hondar gorria garbitzeari».

“Mendafin usaineko iluntzeak” Marokora egindako, Marokon egindako, bidaiaren ondorioz sortutako poema-liburua da. Argi dago Galardi bertan izan zela, egoteaz gain, izan aditzak baititu ondo-

rio modura halako sormen-lanak. Hiru ataletan banaturik dago 69 ale dituen liburua. Lehenengoa “egon” aditzarekin zerikusi handiena duen atala dela esango genuke. Idazlea bertara iritsi da, ez da harremanik sortu tokiarekin, ez da harremanik sortu tokikoekin, eta bere begia argazkiak ateratzen ari da ezezagun zaion errealitate horretan. Lehen poeman, “Fular berde turista” izenekoan, Menarara iritsi orduko turistaren mugimenduak, fular berdekoarenak, deskribatzen dizkigu, presaka «Erdi Arora, sultanen erreinura» abiatuz.

Bigarren atalak bihurtzen du “egon” “izan”. Idazleak egun batzuk igaro zituen Atlas mendiaren azpiko herririk batean, harreman sarea bere kabuz hasi zen hedatzen, eta argazkiak ez ezik, bizimodu bat hauteman du begietan, “Estanpa polita” izenekoan da horren adibide argiena «... Naima eta Kaltouma ahizpek, gosaldun ondoren, almendrak zuritzen dituzte lurrean eserita, eta Abdosamad gazteak osaba Lhoussaineri automobila garbitu nahi dio...» Argazkietan ageri direnek izena dute, ez dakigu egiazkoak diren ala asma-tuak, baina dakiguna da pertsonaiak egiazkoak direla. Gerora, gainera, beste

**MENDAFIN USAINKO ILUNTZEAK**

Autorea: Aintzane Galardi.
Argitaletxea: Erein, 2015.
Orrialde kopurua: 96 orri.
Salneurria: 8,00 euro.

poema batzuetan, errepikatu egiten dira izen batzuk. Izan ere, poema-liburu honetan istorio bat kontatzen da, bidaiaren istorioa, ez da Marokori buruzko poema solteen erakusketa.

Hirugarren ataletan idazlea etxean dago jadanik, eta argazki-albumari erreparatuz ari da idazten, buruan kateatu zaion malenkonia horrek behartzen du idaztera, arrastoa utzi du Marokok eta urruntasunak min ematen dio «...Beraz, zergatik hitz egin / malenkonia / gure laguna baltz bezala?», etxeko atetik irten eta lipar batean hara joan ezinaz sortzen dio hertsura. Ametsetan soilik etortzen zaizkio hangoak eta berekin nahi ditu...Otoi! ez zaitezte joan ni esnatu aurretik, azkenaldian bezala».

Estiloari dagokionez, poemak agerikoak dira, barnetik atera zaizkion gogoetak, bizipenak eta argazkiak, interpretazio kopuru mugatua dutenak. Poema laburrak gehienak, erraz irakurtzeko modukoak, hiztegiaren arakatuta eskuratutako hitzez josi gabeak. Adierazgarri tarteka, uzten dizkigun maitasun-geziak, hots, poema oso laburrak, maitasun-deklarazio itxura dutenak: «Oraindik ez da sortu / elkar ezagutu genuen eguna / estaliko duen basamorturik». Halakoak, tarteka, ezkutuan baleude bezala, agertzen zaizkigu.

Gustura irakurriko duzu irakurle, are gehiago, Marokon izan bazara.